

## KANALAK

Guztiok dakigunez, gaur egun teknologia asko aurreratu da eta honekin batera hauen erabilpena, batez ere berrogeialdian. Mugikorrek ezinbestekoak dira gazteontzat, baita helduentzat ere. Sare sozialak eta aplikazioak egunerokoan darabiltzagu eta guzti hau aprobeztatuz gure aplikazioa sortuko dugu. Izan ere, askoz ere errezagoa izango da gure proiektuaren berri jendeari ematea. Guk geuk sortuko dugu aplikazioa hainbat arrazoiengatik baina esanguratsuena, diru aldetik oso merkea izango dela programatzea da.


Aplikazioaren helburua, zubilana eginez ondasunak eta zerbitzuak eskuratu, nahiz eskaintzeko prest daudenei, hori egiteko erraztasuna ematea izango da. Hori egiteko, lehenik zerbait eskaini nahi duten bezeroek, dohainik izango den formulario bat bete beharko dute, zeina aplikazioko eskuin aldean egongo den izen emate atalean, haien datuak jarritz eta zer emango duten azalduz. Gure betebeharra izango da egoki bete dutela ziurtatzea eta dena ondo dagoela. Hori egindakoa, aplikazioan haien perfila jarriko dugu, eskaintzen dutena azalduz.

Enpresa oinarri batekin hasteko, hots, bezero batzuekin, Euskal Herriko unibertsitateetatik zein eskoletatik pasatzeko ideia bururatu zaigu, adin horretako jendea delako batez ere gure jomuga. Aplikazioaren berri ematea izango da gure helburua eta haiek parte hartzera gonbidatzea. Hori egiten badugu, lanean hasteko pertsona kopuru on batekin egingo dugula uste dugu.

Ildo beretik jarraituz, bezero berri gehiago erakartzeko publizitate plan agresiboa jarriko dugu abian. Esaterako, mota ezberdinetako propaganda egingo dugu; bideoak, kaleko mobilario erabiliko dugu, baita irratia ere, kartelak, folletoak eta abar luze bat. Aipatutako azken bi hauek egiteko, kontuan hartuko dugu erabiltzen dugun materiala, klima aldaketa areagotzea sahiesteko asmoz. Hortaz, erabiliko dugun materiala ekologikoa izango litzateke. Horrez gain, sare sozialetaz baliatuko gara, hazkunde handiagoa izateko. Twiter-reko, Instagram-eko eta Facebook-eko kontua izango dugu eta bertan hainbat ekintza egingo ditugu; zozketak adibidez. Hau guztia, gure enpresa Euskal Herriatik zabalitzen joateko, eta beraz, ezaguna egiteko.

Bestalde, gure aplikazioaren barnean, sarri egiten diren galderak argitzen ditugun orrialdea izango genuke bezeroek zalantzak edukiko balituzte. Esan beharra dago galderaren bat orrialdean ez badago, gure sare sozialetan, posta elektronikoa eta telefono zenbakia erabilgarri egongo direla, kontsumitzaileak gurekin harremanetan egoteko. Hau nahikoa ez bada, bulegoa ere edukiko dugu, Urretxuko Labeaga 34 kalean kokatua, honi esker, bezeroak beldurrik gabe gutako norbaitekin hitz egin lezake eta nahi dutena azal liezaiekegu.

Noski gure enpresa euskalduna da; hau dela eta gure lehenengo hitza euskaraz izango da beti, izan ere, gure enpresa euskal herriari bideratuta baitago. Era berean aplikazioaren hizkuntza nagusia euskara izateak ez ditu beste hizkuntzak baztertzen. Horretaz gain, gure helburua mundu osora zabaltea da, ondorioz, hizkuntza gehiago eskainiko ditu aplikazioak jendeak erreztasuna eduki dezan erabiltzeko; hala nola, gaztelera, ingelesa, frantsesa, baita katalana ere, hizkuntza polit hau berpiztu nahi dugulako. Beraz, gertutasuna, erraztasuna eta segurtasuna ahalbidetzeko beraien hizkuntzan ere aplikazioa zein kontaktua ahalbidetuko diegu.



Gure aplikazioaren bidez erositako produktuak bidaltzeko eta jasotzeko zerbitzua ere guk emango dugu; hau da, norbaitek produktu bat erosten badu eta etxera bidaltzea nahi badu gu izango gara produktuak eroslearen etxera iristearen arduradunak gure garraioaren bidez.

Amai dezagun esanez gure helburu nagusia bezeroak gustura gelditzea dela eta guran konfiantza edukitzea. Hau dena gure zerbitzuen kalitateak baldintzatuko duela argi dugu eta ondorioz, ahalik eta esfortzu gehien jarriko dugu dudarik gabe. Gure bezeroentzat erraztasuna bilatzen saiatuko gara; gure aplikazioak erabilgarritasun handia du eta erabiltzeko zailtasuna oso txikia du. Izan ere, gure aplikazioaren diseinua oso polita eta oso ongi planifikatua dago; hau dena kontsumitzaileak ondo ulertzeko eta erabiltzeko erraza izateko. Beraz, erabiliko dugun kanal mota kanal propioa dela esan dezakegu, zehazki kanal zuzena.

